



Arartekoaren ebazpena, 2010eko ekainaren 15koa. Horren bidez, bukatu du bere jarduera Ertzaintzak inkomunikazio-erregimenean egondako atxilotuei emandako tratu txarregatik bideratutako kexan.

Aurrekariak

1. Ondarroa, Mutriku eta Gizaburuagan operazio antiterrorista batean zenbait pertsona atxilotu ondoren, erakunde honetan, 2010eko urtarrilaren 27an, Ertzaintzaren bulegoetan -6. zk.ko Instrukzioko Epaitegi Zentraleko 112/2008 aurretiazko eginbideen esparruan- inkomunikatuta egon ziren pertsona horien senideek idazki bat bidali ziguten. Ildo horretan, esan ziguten kezkatuta zeudela atxilotutako pertsonetako batek -lokal bat miatu ondoren- buruaren aurreko eta atzeko aldean zituen lesioengatik. Hori guztia kexagileek ziotenari jarraiki. Halaber, adierazi zuten, inkomunikazioko kasuetan aplika daitekeen protokoloan ezarritako informaziorako telefonora deitu zutenean, telefonoaren beste aldean zegoen pertsonak atxilotuak senideei helarazi nahi zizkien arropak edo ondasunak non utzi zitzaketen baino ez ziela esan. Halaber, atxilotuak ondo zeudela eta auzitegiko medikuak ikusi zituela jakinarazi zien. Dena den, atxilotuta non zeuden ez zien esan nahi izan. Horregatik guztiagatik kexu ziren eta, azkenean, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuten, atxilotuen senideei abokaturik gabe galdeketa egin ez ziezaieten eskubidea bermatzeko, baita legeak ematen dizkien gainontzeko eskubideak ere.

Arartekoak sailari kasu honetan protokoloa nola aplikatzen ari zen azaltzeko eskatu zion, zehazki, adierazitako hiru alderdiei zegokienez. Urtarrilaren 28an, Herrizaingo sailburuak erakunde honi fax bidez idazkia bidali zion, eta bertan adierazi zigun atxilotutako pertsonak aipatu bulegoetan Ertzaintzaren zaintzapean zeudela, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 520 bis artikuluan jasotako baldintzen arabera. Horrez gain, adierazi zigun atxilotuak tratatzeko modua eta ustezko delituak epaitzeko gertakari eta inguruabar garrantzitsuak aztertzeko beharrezko gainontzeko neurriak jurisdikzio kontrol egokiarekin burutzen ari zirela eta auzitegiko medikuak atxilotuak 24 orduko aztertzen zituela. Hortaz, haren egitekoa erakunde honi aipatu protokoloa zehatz-mehatz aplikatzen ari zela jakinaraztea zen.

2. Arartekoaren ustez, Herrizaingo Sailak emandako erantzunak ez zituen jorratu modu espezifikoa erakunde honek aipatu zituen hiru alderdiak. Horregatik, urtarrilaren 29an, horien inguruko informazio eskaera berriro egin zuen.

Hala, aipatu eskaera otsailaren 10ean zabaldu zen, inkomunikazioa amaitu ondoren atxilotuei ustez emandako tratu txarren salaketak aditzera eman zirela eta senideek horien berri eman zigutela aintzat hartuta. Horien arabera, deklarazio formalaren aurretik galdeketa abokaturik gabe egin ziren eta



kolpeak, behartutako postura fisikoak eta mehatxuak jazo ziren. Hori horrela, sailari horren inguruan zituen gogoetak helarazteko eta atxilotu guztiei protokoloa aplikatzeari buruzko datuak zehatz-mehatz adierazteko eskatu genion, bereziki, atxilotutako lau pertsonak behar izan zuten ospitaleko laguntzaren inguruan, baita atxilotutako pertsona baten familiari emandako informazioaren inguruan ere. Familia horrek telefono bidez jasotako arreta zela eta kexa bat jarri zuen.

3. Otsailaren 15ean, sailak Arartekoari idazki berria bidali zion. Horren bidez adierazi zigun, urtarrilaren 29an egin genuen idazkia kontuan hartuta, erantzun zehatzagoa bidali zigutela. Ertzaintzak jarduteko gidatzat legezkotasun printzipioa duela adierazi ondoren, inkomunikatutako atxiloteta-egoerentzako ezarritako protokoloa eta erakunde honekin lankidetzan aritzeko betebeharra zituen hizpide. Hauxe zioen zehazki:

“Beren artean alde handia daten komunikabideak hain sarritan aipatutako ‘Protokoloa’ (‘Inkomunikazioen kasuan aplikatzeko protokoloa’, agertu den pertsonaren hitzetan) Ertzaintzak Legezketasun Printzipioa modu eraginkortasun betetzeko modu zehatza, metodologia izango litzateke. Ertzaintzako lan-prozedurek, protokolizatuak egon ala ez, ez dute atxilotutako pertsonaren ustezko eskubide subjektiboen iturri gehigarria osatzen. Nolanahi ere, erakundeen arteko beharrezko lankidetzak-izaerari dagokionez, eta euskal herri-administrazio osoak Arartekoari, Eusko Legebiltzarreko mandatari nagusia den aldetik, egindako kudeaketaren gainean kontu emateko duen nahitaezko zereginari dagokionez, honakoa jakinarazi nahi dizut...”

Jarraian, urtarrilaren 26an eta 28an eta otsailaren 2an jazotako atxilotetak nola jazo ziren zioen hiru faseak aipatu ziren, baita atxiloteta horiek jazo ahala agintari judizialari jakinarazi zitzaizkiola ere. Azken horrekin batera, Guardiako Epaitegiari zuzendutako inkomunikazioa eta exhortoa berresteko eskaerak aurkeztu ziren. Hori guztia, bai polizi bulegoetan sartu baino lehen, baita 24 orduro ere, auzitegiko medikuak atxilotuak azter zitzan. Azterketa horiek noiz burutu ziren jakinarazi zitzaigun, baita lehenengo aurrekarian modu espezifikoa aipatu dugun atxilotua lokala maiatzerakoan leiho batetik salto egiten ahalegindu zela ere. Kasu horretan, leihoa apurtu, zauritu ziren bi agentek geldiarazi eta osasun arloko langileek gertakariak jazo ziren lekuan artatu behar izan zuten.

Senideei emandako telefono-arretari dagokionez, adierazi ziguten jasotako dei guztiak erantzun zirela, atxilotetaren lekua eta arrazoia berretsiz, atxilotuen osasun-egoeraren eta botikak eta beste gauza pertsonalak emateko erregimenaren berri emanez (gauza pertsonalei zegokienez, esan ziguten



hartzaileek jaso zituztela); inkomunikazioa behin-behinean kendu zela jakinarazteko konpromisoa hartuta, baita senideak epailearen esku jarri zirela ere.

Halaber, sailaren idazkiak zioen atxilotuei hartutako polizi deklarazio guztiak prozesuko berme egokiekin garatu zirela eta beti abokatu bat egon zela.

Azkenik, sailak adierazi zuen erakunde honetara jo zuten senideen artean geroago terrorismoarekin kolaboratu izanagatik delituaren ondotik atxilotu eta prozesatu zuten pertsona bat zegoela eta aipatu pertsonaren oinarririk gabeko tratu txarren akusazioek atxiloteta-kasuetarako ETA erakundearen jarraibideak hitzez hitz jarraitzen zituela.

Ondorioz, sailak esan zuen Ertzaintzaren aurka egindako akusazioek ez zutela zentzurik eta asmo txarrez egin zirela. Hortaz, Ararteko erakundearen aurkeztutako kexen onargarritasun-irizpideak erregulatzen dituen araudia kasu honetan zenbateraino bete zen jakin nahi zuen.

4. Esan dugun moduan, espediente honen sustatzaileek erakunde honetan adierazi zuten atxilotuek bigarren aurrekarian aipatutako tratua jasan zutela Ertzaintzaren zaintzapean egon ziren bitartean. Hain zuzen, otsailaren 17an izan ziren Ararteko erakundearen, inkomunikazioa amaitu ondoren atxilotuek senideei adierazi zieten lekukotasuna helarazteko.

Aipatu lekukotasunak kontrol judizialaren esparruak barne hartutako bi alderdi zituen hizpide. Atxilotuen eskubideekiko errespetua bermatze aldera, 6. zk.ko Instrukzioko Epaitegi Zentralak kontrol judiziala baliatu zuen: alde batetik, atxilotuen etxebizitzetan nola sartu eta etxebizitzok nola miatu zituzten; bestetik, atxilotuek polizi bulegoetan jaso zuten tratua. Horregatik, eta leialtasun eta erakunde arteko lankidetzaren printzipioak aplikatuz, Arartekoaren ustez egokia zen aipatu organoak erreklamaziogileen adierazpenen berri izatea.

5. Otsailaren 22an, sailak idazki berria bidali zigun, eta bertan adierazi zigun erakunde honek otsailaren 10eko hirugarren gutunean egin zuen informazioa zabaltzeko eskaerari erantzuna berehala eta oso-osorik emango ziola.

Idazkiak aurreko erantzuna hitzez hitz errepikatzeaz gain, atxilotuek Ertzaintzaren zaintzapean egon ziren bitartean jaso zuten mediku eta ospitale arretari buruzko informazioa barne hartu zuen. Horrez gain, inkomunikazio-kasuetarako ezarritako protokoloari zegokionez, bertan jasotako prozedurak alda edo salbuetsi daitezkeela, hala egiteko eraginkortasun arrazoiak edo aukera egongo balira. Hori, ordea, ez zen gertatu.





Azkenik, aipatu zen Ertzaintzak ez zekiela auzibidean eta administrazio bidean atxilotuek jaso zuten tratua ondotik salaketa jarri zenik eta Arartekoaren otsailaren 10eko idazkiak hizpide zituen salaketak kalumniazko akusazioak baino ez zirela, erakundeen izena zikintzeko plan metodikoaren xedea, hain zuzen.

6. Erantzun hori ikusirik, Arartekoak, martxoaren 26an, Herrizaingo Sailari laugarren idazkia bidali zion, eta bertan, eskubideak eta askatasunak bermatzeko konstituzioan ezarritako mekanismoen arteko osagarritasuna arautze aldera, ordenamenduak errepikapenak saihestearren aurrerago aipatuko ditugun alderdien inguruan xedatutako eskumen-muga azaldu zen lehenik. Analisi hori kontuan hartuta, gure esku-hartzearen esparrua eskubide horiek urratzeko arriskuaren inguruan kokatu genuen, uneko praktikak berraztertuta, horretarako baliabideak eta mekanismoak hartzeko sustatuta eta gomendatuta, baita funtzionamendua eta behar bezalako aplikazioa egiaztatuta.

Egindako lana eta Arartekoak horren ildotik egindako gomendioak oinarri hartuta, ez geunden ados sailak egindako adierazpenekin, alegia, erakunde honen bitartez kexa izapidetzeko onar zedila. Bestalde, adierazi genuen sailak berak ikertu behar zituela otsailaren 10ean bideratu genuen idazkiak hizpide zituen polizi jarduera guztiak. Azkenik, kontrol jarduera hori burutze aldera, atxilotuek Ertzaintzaren bulegoetan emandako denboraren grabaketak ikusteko eskatu genuen, baita aipatu atxilotetei dagokien atestatuak, erregistroak eta gainontzeko agiriak eskuratzeko ere. Hori guztia dagozkigun funtzioak behar bezala gauzatu genitzan. Gainera, sail horri gai honi zegokionez barneko azterlanari hasiera emateko prest ote zegoen adierazteko eskatu genuen eta, hala izanez gero, azterlanaren emaitzak aztertze.

7. Herrizaingo Sailak apirilaren 16ko idazkiaren bidez honako hau erantzun zuen:

“Aurreko 2010eko martxoaren 26an, 223/2010/32 eta 302/2010/32 zk.ko erreferentziako eskaeran, Ertzaintzako polizia-egoitzan hainbat atxilotuen egonaldien grabazioak ikustea eskatzen da. Horri erantzuteko, honen bidez jakinarazten dizut ez dela bidezkoa grabazio horiek bidaltzea, epai bidez ebatzi gabe egoteagatik –Audientzia Nazionaleko Instrukzio 6. Epaitegi Zentralak hasitako 112/08 Aurretiatzko Eginbideak- eta Ararteko erakundea eratzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikulua aplikatuz.”

Erantzuna ikusirik, Arartekoak ebazpen honen bidez espedientea amaitutzat ematea erabaki zuen. Ondorengo gogoeta hauek ditu oinarri aipatu ebazpenak:



Gogoetak

1. Herrizaingo Sailak Arartekoak egindako eskaerari ez erantzuteko emandako arrazoiaren ondotik, erakunde hau sortzen duen legearen 13. artikuluari lotzen gatzaizkio.

13.1. Atala. Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezzen arrenkurak banaka aztertzen hasiko. Horretan hasi ondoren doakionen batek agizko Epaitegiaren edo Konstituzio Epaitegiaren aurrerako zuzenketa-eskea edo goradeia sartzen badu, azterketak geldiarazi egingo dio.

Hortaz, lehenengo, aipatu araua Espainiako Konstituzioko I. tituluko VI. kapituluaren diseinatutako sistemaren esparruan kokatu behar da. Bertan, 53. eta 54. artikuluetan, jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta Herriaren Defendatzailearen erakundea, konstituzioak onartzen dituen eskubideak bermatzeko sistema ixteko mekanismo gisa jasotzen ditu. Esku hartzeko esparrua legeak ematen dizkien funtzio osagarriak aintzat hartuta zehaztuta duten erakundeak dira. Beraz, jardunak egoera edo kasu berean bat etor daitezke, xede desberdinak eduki arren.

Hala, esku artean dugun egoeran bezalako administrazio egoeretan, bi dira ezagutza esparru judizialean duten alderdiak: alde batetik, atxiloketa epaitegi batean bideratutako zenbait eginbideren esparruan xedatu denez, kasuan kasuko titularrari dagokio inkomunikazio izaeraren inguruan ebaztea, baita atxilotutako pertsonen eskubideak errespetatzen direla bermatzeko betebeharra ere; bestalde, eskubide horiek errespetatu ez izanaren ondotik epaitegietan salaketa jartzen denean, kontrol hori egon arren, salatutako gertakarien unean eta lekuan jardunean den Guardiako Instrukzioko Epaitegiak ikertuko du horrek eragin dezakeen erantzukizun penala.

Epaitegiaren egitekoa osatuz dihardu Herriaren Defendatzaileak sistema honetan, iritzia eman ezin dezakegun kasuetan izan ezik. Halaxe gertatzen da aipatutako bi horiekin. Dena den, pertsona bat eginbide judizialen esparruan poliziaren zaintzapean egotea ez da traba bat eta inoiz ez da traba bat izan Arartekoak prebentziozko eremuan jardun dezan –hau da, kasu hauetan gure esku-hartzea kokatzen dugun eremuan-: poliziaren jardura eta, bereziki, sail horrek jardun administratibo egokia bideratzeko hartu dituen tresna propioak (barneko jarraibideak eta protokoloak) legezkotasunarekin bat datozela egiaztatzen dugu. Era berean, erakunde honek gai horri buruz eman dituen gogoetak betetzen direla egiaztatzean datza, aurrerago azalduko den moduan.

2. Esku artean daukagun kasuan bezalakoetan erakunde honen esku hartzeko eremua hala mugatuta, sailak Arartekoak eskatutako informazioa ez bidaltzeko apelatutako zioak ez dauka baliozkotasunik.



- Lehenik eta behin, sailaren azken erantzuna bideratzen denean eta sailak berak dioenaren arabera, erreklamaziogileek Arartekoan azaldutako gertakariak ez zirelako salaketa penalean aztertu (geroago argitara eman zenari jarraiki, aipatu salaketa maiatza bukaeran jarri zen). Hortaz, ez zen ebazpen judiziala emateke zuen gaia, erantzun horretan adierazi zen moduan. Izan ere, sailaren idazkiak aipatzen duen ebazpen judiziala emateke duen gai bakarra, 6. zk.ko Instrukzioko Epaitegi Zentraleko 112/08 aurretiatzko eginbideak, atxilotuei egozten zitzaizkien erantzukizunei buruzkoa da. Kontu horrek ez dauka zerikusirik espediente honek jorratzen duen gaiarekin, ezta eskatutako informazioarekin ere.
- Bigarrenik, Arartekoan bideratutako kexak hizpide zituen gertakari berengatik salaketa penala egongo bazen ere, ezerk ez lukeelako erakunde honen esku-hartzea eta, ondorioz, Herrizaingo Sailak erakunde honekin lankidetzan aritzeko betebeharra oztopatuko. Izan ere, aipatu esku-hartzearen xedea -Arartekoak bidalitako laguntza eskaeran berariaz adierazita zegoen moduan- ez zen Instrukzioko Epaitegiari dagozkion erantzukizunak ikertzea, prebentziozko ikuspegitik bideratu baitzen.

Prebentziozko jarduera hori biltzen duten alderdi zehatzei dagokienez, gogoratu beharko genuke 2004ko abenduaren 21ean *Ararteko erakundeak torturaren inguruan egindako adierazpena* (Eusko Legebiltzarrarentzako 2004ko ohiko txostena). Bertan adierazi genuenez, prebentzioz jardun ahal izateko gomendagarria liteke zenbait mekanismo gauzatzea, hala nola, atxilotuei mediku-azterketak egitea, atxiloketetan zehar grabatzea, ertzainak prestatzea eta horiei torturaren inguruko jarraibide argiak ematea. Gainera, txostenean gomendatu genuen atxiloketa inkomunikatuan zehar berme zehatzak ezartzea; esaterako, atxiloketako lehenengo unetik abokatu baten laguntza izatea, pertsona inputatua epailearen aurrean aurkeztea atxiloketa inkomunikatua luzatu baino lehen, eta inkomunikazioa edo atxiloketaren luzapena kasu guztietan justifikatzea.

Sail horrek, bestalde, hartutako hainbat mekanismoren berri eman dio erakunde honi, eta mekanismo horien artean, urteetan zehar Arartekoak eta gai honen gainean eskumena duten nazioarteko erakundeek egindako gomendioetako batzuk daude (esaterako, 2001eko urriaren 15eko *"Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen Erantzuna"*, edo 2002ko azaroaren 15eko *"Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen Kontalari bereziak torturari buruz egindako informazio eskaeraren erantzuna"*). Sailak, gainera, mekanismo horietariko batzuk eranskin gisa gaineratu ditu atxiloketen inguruko bere barne-jarraibideetan. Alde batetik, inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsonak artatzeko eta pertsona horien familiei laguntzeko Ertzaintzak, Osakidetzak eta Lege Medikuntzako Euskal Erakundeak burutzen dituzten jarduerak koordinatzeko protokoloari buruz ari gara [I. eranskina, instrukzioko A) eta B) atalak] eta, bestetik, atxilotutako pertsonen grabatzeko sistemari buruz (instrukzio bereko III. eranskina).





Arartekoak, beraz, mekanismo horien alegiazkotasuna ebaluatu beharra dauka, baina ez eskubide subjektiboen iturritzat jotzen dituelako, baizik eta Herrizaingo Sailak berak aurkeztu dizkigulako eskubide horien eraginkortasuna bermatzeko bitarteko gisa. Horrelaxe adierazi die sailak, gainera, nazioarteko erakundeei, 2006ko martxoaren 16ko idazkian adierazi zigunaren arabera. Eta horrelaxe iritzi du Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordeak ere, 2009ko azaroaren 12an eta 13an Genevan egindako 913. eta 914. bileretan, Espainiako Aldizkako Bosgarren Txostena (CAT/C/ESP/5) aztertu ondoren, aurkeztu ziren azken oharren 15. puntuari. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, balorazio bera egin zuen 2003ko maiatzaren 7ko eta 2004ko maiatzaren 7ko ez-legezko proposamen bietan, eta 2004ko azaroaren 16an segurtasun indar guztiek aplikatzen zituzten agindu zuen.

3. Kasu honen inguruan Arartekoak bideratutako jarduerak zentzua lortu dute, beraz, erakunde honen ordezkariak, 1991n *"Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak"* txosten berezia publikatu ondoren, hainbat polizi bulegotara egindako bisiten testuinguru berean. Bisitaldi horietan kexa-espedituek hizpide izan dituzten instalazioak, grabazioak eta atxiloketen erregistroak begiratu ditugu, erakunde honen gomendioek benetan duten betetze maila zein den egiaztatzeko eta eraginkorrakoak diren mekanismoak ezartzen laguntzeko, legea hausten duten jarduerak saihesteko eta instantzia eskudunek, arau-hausterik balego, horiek aurkitu eta zuzentzeko.

Aipatutako prebentziozko ekintza ezin da burutu administrazioaren laguntzarik gabe, izan ere ez luke edukirik izango, bere ekintzak legea errespetatu duela adierazteko, Arartekoari txostenak bidaltzera mugatuko balitz. Lankidetzara hori, berriz, bi alderditan zehaztu behar da:

- Alde batetik, kexa eragin duten gertakarien inguruan osoki informatuz. Horrela egin du sailak kasu honetan, euskal administrazio guztiek Arartekoari bere kudeaketaren berri emateko duten beharra berriaz aipatuta, 6. zk.ko Instrukzioko Epaitegi Zentraleko 118/07 aurretiazko eginbideak egon arren.
- Bestalde, Arartekoak eskatzen dizkion erregistroak eta grabaketak bidaltzean, haren jardura jasota geratu denean, informazio hori egiaztatzeko baimenduz. Egiaztatze horren mende dago gure kontrolaren eraginkortasuna, bai bertsio ofizialaren eta erreklamatzailerak aurkeztutakoaren artean kontraesanak daudenean, bai administrazio-jardueraren jarraipen orokor baten parte denean.

Egoera honetan, berriz, Arartekoa egiaztapen hori egiten hastera zihoanean, administrazioak bere kudeaketaren berri emateari utzi zion, eta beraz, Arartekoak ezin du burutu berme-sistema konstituzionalaren arabera bete behar duen prebentziozko funtzioa. Funtzio hori hasieratik gauzatu izan da kontrol



jardueren eta atxilotuen tratuari buruzko gomendioen bidez, eta orain arte, ez du oztoporik aurkitu horien erantzukizun penalaren inguruan eginbide judizialak egon izanagatik. Horregatik guztiagatik, sailak kontrol hori ukatzean hartu duen erabakiak juridikoki arrazoirik ez duela ondorioztatu dugu, eta ukapen hori agintzeko jarraitu den irizpideak euskal administrazio publikoaren aurrean herritarrek duten berme-sisteman atzerapauso bat dela ikusi dugu.

4. Bestalde, gure ustez ez zegoen legezko eragozpenik erakunde honek euskal herri administrazioen menpeko polizia kidegoei -herritarren eskubideen aurka doazen jarduerak prebenitzeko esparruan- bere lana betez emandako beste gomendio orokor batzuk bete ote diren aztertzeko, eta horri buruzko iritzia emateko.

Alde horretatik, lehen aipatu dugun *Ararteko erakundeak torturaren inguruan egindako adierazpenean* bereziki nabarmendu genuen poliziako arduradunek azterlan bat egin behar dutela, azkar eta inpartzialki, torturei edo tratatu txarrei buruzko salaketan gainean. Izan ere, gure ustez, hori ezinbesteko tresna da legea hausten duten balizko jarduerak saihesteko, eta behar izanez gero, zuzentzeko.

Agiri horretan *Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako* gomendio orokorraren erabateko baliotasuna baieztatu genuen (2003ko ohiko txostena). Bertan defendatu genuen irizpidea berriz ere azpimarratu behar dugu. Horren arabera, zigor izapideak egotea ez da oztopo poliziaren jardunbidea ikertzeko, nahiz eta kexaren xedea eta zigor prozesuarena bat etorri -kasu honetan gertatu ez zena-, eta ezta jardunbide horren azterketa egiteko diziplinari dagokionez ere, hori jarraitu beharreko portaera irizpideetara egokitzeke; betiere, epai irmoa egon arte ebazpenik ematen ez den bitartean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak adierazi genuen interpretazioa babestu zuen, 91.5 artikuluan honakoa adieraztean agenteen aurkako prozedura penalak egiten ziren kasuetarako: *“Euskal Herriko Poliziako kideen kontra zigor-legezko prozedura hasteak ez du galaraziko egintza berengatik alde aurreko informazioa edo dagokion diziplinazko espedientea izapidetzerik, eta, hala badagokio, espedientepekoei aldi baterako geldialdia ezarriko zaie eta egoki diren bestelako bermezko neurriak ere hartuko dira. Hala ere, aipatutako prozedura horiek zigor-legez emandako epaia sendetsia denean bakarrik erabaki ahal izango dira, aipatzen dituen ekintza frogatuen adierazpenak administrazioa lotzen duela”*.

Alde horretatik, hizpide ditugun eskubideak babestea, azken finean, babes judizialari dagokion arren, azterlan judizialean eska daitezkeen baldintzak guztiz aplikatu daitezke barneko azterlanean, babes hori eraginkorra izan dadin. Baldintza horiek 2008ko apirilaren 14ko Konstituzio Epaitegiaren Epaiko 2., 3.,



4. eta 5. oinarrietan jasotako doktrina eta jurisprudentziak biltzen ditu (RA 6421/2004).

Bi gomendioak oinarri hartuta, eta azaldutako arrazoiengatik gure ustez sailak aipatu duen erakundeari ospea kentzeko kanpainak ez duenez justifikatzen kasu honetan salaketa guztiz atzera botatzea, sailari adierazi genion, oraindik egin ez balu, gure otsailaren 10eko jakinarazpenean aipatutako poliziaren jarduera guztiak aztertu beharko lituzkeela.

Sailak ez dio erantzunik eman informazio eskaera horri, eta beraz, ezin dugu egiaztatu erakunde honen gomendioak puntu horretan bete direnik. Otsailaren 15 eta 22an bidalitako idazkietan, bestalde, Arartekoak ez lituzkeela kexak onartu behar izan adierazi zuen. Gai honi buruz bi alderdi nabarmendu nahiko genituzke, horiek argitzea guztiz beharrezkoa dela iruditzen baitzaigu.

Ikuspegi formaletik, eta erakunde honen eta berak –betebeharra duelako– gainbegiratu behar dituen administrazioen arteko elkarrekintzari buruz 3/85 Legeak aipatzen duenaren arabera, gure ustez ez da egokia administrazioek euren iritzia ematea euren aurka egin diren kexak onartzeari edo ez onartzeari dagokionez. Bestalde, kexak ez onartzeko arrazoiak legearen 21.2. artikuluan xedatuta daude. Zentzu horretan, ez dirudi administrazio horrek, kasuaren lehenengo hurreratzean, arrazoi horietako baten aurrean geundenik azaldu zuenik. Besterik gabe baieztatu zuen, atxilotuen sinesgarritasuna kutsatuta zegoela, izan ere, ETAk bere kideei eskatzen die torturatu dituztela salatu dezaten.

Bestalde, eta ikuspegi materialetik, ez zaigu arrazoizkoa iruditzen ETArekin ustezko harremana duten atxilotuek aurkeztutako tortura edo tratatu txarren alegazio guztiak erabat atzera bota behar izatea, erakunde terroristak bere kideei ustez halako jarraibideak eman izanagatik. Eta hori argitzeko hiru arrazoi aipa ditzakegu:

- baieztapen horren arabera, akusazio horren pean atxilotuta dagoen pertsonak ez lituzke inolaz ere tratatu txarrak jaso. Baina, torturaren gaitza errotik baztertzeko ezinbesteko baldintza da, hain zuzen ere, aukera hori badagoela onartzea. Horixe irizten du, bai erakunde honek 2004ko torturaren aurkako adierazpenean, bai gai honen inguruan eskumena duten nazioarteko erakunde guztiek. Irizpide horrek, era berean, fiskaltzaren jarduera azaltzen du, atxilotuak torturatu izana leporatzeagatik polizia-agenteentzat kartzela zigorrak eskatu izan dituenen, nahiz eta, atxilotu horiek, ETako kide gisa ekintza terroristengatik zigortuak egon.
- Tortura Saihesteko Europako Kontseiluak, Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak eta bere kontalari bereziak Terrorismoaren aurkako borrokan Giza Eskubideak babesteko behin eta berriro egindako gomendioak urratuko



lirateke, hau da, horrelako alegazio oro azterlan sakon, azkar eta independente baten xede izatea.

- enpirikoki erakutsi da beti ez dagoela harremanik pertsona bat ETako kidea izatearen eta poliziaren aldetik tratu txarra jasotzea edo ez jasotzea alegatzearen artean. arrazoi horregatik kondena irmoa egokitzen zaien pertsona guztiek ez dituzte torturak alegatu, eta torturak alegatu dituztenen artean asko absolbitu egiten dira edo euren aurka hasitako kausa artxibatu egiten da. Azken urtean argitaratu diren bi azterlanek halaxe adierazi dute; 2000 eta 2008 urteen artean egon diren atxilotuta inkomunikatuen kasuetan aurkeztutako tortura alegazioak xehetasunez aztertzen dituzte. lehenengo azterlana, 2009ko martxoan agertu zena, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak hala eskatuta egin zen eta mediku entzutetsuen talde batek burutu zuen, Euskal Lege Medikuntzako auzitegiko mediku baten zuzendaritzapean; bigarrenak, joan den otsailean argitaratu zenak, erakunde honen beka baten laguntza jaso zuen eta Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzaileek burutu zuten. Egunkaria kasuaren epai berriak egoera berean kokatzen gaitu, bere zuzendariak jarri zuten salaketaren artxiboaren aurkako errekurtsioan erabakitzen dena alde batera utzita, Europako Giza Eskubideen Auzitegian erabakitzeke dagoena: zentzu honetan garrantzia daukana zera da, epai sendo batek errugabetasuna eta zintzotasuna aitortzen diela inkomunikazio-erregimenean ustezko terrorista gisa atxilotuta egon direnei. Pertsona horiek, gainera, haien ardura zuten polizia-agenteen torturak salatu zituzten.

Ondorioz, Herrizaingo Sailak horren inguruko barne-ikerketa bat ireki behar izan zuela uste dugu, eta erakunde honek gomendatzen zuen ebazpena bete izana egiaztatu ez duela ulertzen dugu.

Horregatik guztiagatik, Herrizaingo Sailak kexa ebazteko eman dizkigun datuak ikusita, eta berriz ere orain arte eman ez digun informazioa eskatzeak zentzurik ez duela iritzita, gai honetan gure esku-hartzea amaitutzat ematea erabaki dugu, eta hona hemen

Ondorioak

1. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak Arartekoari aukera eman behar izan lioke atxilotuak Ertzaintzaren bulegoetan egon ziren bitartean egindako grabaketak ikusteko, eta baita atxilotuta horiei dagozkien atestatuak, erregistroak eta agiriak aztertzeke ere. Aukera hori ukatzeak erakunde honen zereginarekiko lankidetzat falta adierazten du.





2. Ukapen hori emateko arrazoi gisa, atxilotuei egozten zaizkien erantzukizun penalen inguruko eginbide judzialak zeudela adierazi dute, baina hori ez du zuzenbideak justifikatzen eta, gure ustez, euskal administrazio publikoaren aurrean herritarrek duten berme-sisteman atzerapauso bat da.
3. Sailak ez dio behar bezalako erantzunik eman guk bidalitako lankidetzaz eskaerari. Horren bidez, Arartekoaren gomendioak kasu honetan bete ote ziren egiaztatu nahi genuen. Gomendio horien arabera, polizi kidegoek polizia-agenteen balizko ekintza bidegabeak kontrolatzeko neurriak ezarri behar zituzten. Arartekoak kexa onartu behar izan ez zuela behin eta berriro defendatzeak ez dauka inolako oinarririk, eta aipatutako gomendioetan eta gai horretan eskumena duten nazioarteko erakundeek emandakoetan finkatutako jarraibideen aurka joango litzateke.
4. Sailak, beraz, gai honen inguruko ikerketa bati ekin beharko lioke, eta etorkizunean aipatutako gomendioak betetzen direla bermatzeko beharrezkoa den guztia eskura izan beharko luke.

